2015/2016	23	288 (itxi gabe)
Guztira	58	593

- UPV/EHUⁿ euskaraz argitaratzen den irakasmaterialaren hizkuntza berrikusketa Euskara Zerbitzuak burutzen du. Irakasmaterialen hizkuntza kalitatea bermatzeaz gain, Euskara Zerbitzuak urtero argitaratzen du irakasmaterialen euskarazko sormena bultzatzeko deialdia.
- UPV/EHUⁿ euskararen erabilera zuzena bultzatzeko EHUIku aholku zerbitzuan apustu egiten jarraitzen dugu. 2014ko abenduan argitaratu zen CD formatuan 2006tik sortutako hizkuntza aholkuen fitxak. Bilduma sarean dago eskuragarri: [EHUIku](#).
- UPV/EHUⁿ terminoen kontsultarako GAIKA corpusean eta itzulpenen kontsultarako EHUskaratuak corpusean apustu egiten jarraitzen dugu. Bi tresna hauek irakaskuntzan hizkuntza kalitatea hobetzeko oso erabilgarriak dira.

Euskararen II Plan Gidariaren jarraipen txostena Abendua 2015

2.4. Ikasleen eskubide linguistiko-komunikatiboa bermatzea.

Ikasleen eskubide linguistiko-komunikatiboa bermatzeko AZPko langileen hizkuntza formakuntzan ahalegin berezia egiten dugu.

2.5. MOOC (Massive On Line Open Courses) Sarean Unibertsitate Irekian euskarazko irakasgaiak eskaintzea.

Egun sareko MOOC eskaintza orokorra eskasa da eta ez dago MOOC ikastarorik euskaraz.

3. Irakasle eta ikertzaileen oreka lingüistiko eta akademiko handiagorantz:


3.1. Irakasleen eta ikertzaileen plantillako irakasle elebidunen kopurua gutxienez %52ra igotzea

3.1.1. Irakasle elebidunen kopurua gutxienez %52ra igo.

14. taula: *Jardunaldi osoko irakasle elebidunen kopuruaren bilakaera.*

Urtea	Irakasle elebidun kopurua
2013	1703
2014	1728
2015	1773

14. taulan ikusi daitekeen bezala 2013an Euskararen II Plan Gidaria hasi zenetik urtez urte jardunaldi osoko irakasle elebidunen kopurua gorantza joan da. Jardunaldi osora 2013an baino 70 irakasle elebidun gehiago ditugu.



5. irudia: 2013. urtetik 2015. urtera jardunaldi osoko irakasle elebidunen ehunekoaren bilakaera.

5. irudian ikusi daitekeen bezala, zatikizuna jardunaldi osoko irakasle elebidunen zenbakia eta zatitzailea jardunaldi osoko irakasle guztien kopurua izanik, planean zehaztutako %52 gainditzen dugu. Zehazki %53,48 da egungo datua.

3.1.2. Gaur egun plantillan dauden irakasleei euskara ikasteko laguntzak eman eta ondoren lanpostuen soslaiak aldatu

Urtero egiten dugu irakasleek euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia. Gainera soslaiaren aldaketa errazten dugu, horrela erabaki duen irakasleak euskarazko eskolak prestatu ditzan, irakas zama murriztuta. Era berean, lanpostuaren soslaiak aldaketa osagarrietan balorazio irizpideetako bat da.

Euskararen II Plan Gidariaren jarraipen txostena Abendua 2015

3.1.3. Laguntzak irakasle-ikertzaile guztiei euskara ikasteko. GAITZE programaren deialdia berrikusi eta berrabiarazi

3.1.2 puntuan aipatu den bezala, urtero egiten dugu irakasleek euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia. GAITZE programa aldiz, ezin izan da berrabiarazi.


3.2. Doktore titulua daukaten irakasle eta ikertzaile elebidunen kopurua gehitzea

3.2.1. Lanpostuen zerrendan dauden arduraldi osoko irakasle elebidunen %80 gutxienez doktore izan Plangintzaldiaren amaieran.

15. taula: *Jardunaldi osoko irakasle elebidunen eta jardunaldi osoko irakasle elebidun doktoreen bilakaera.*

Urtea	Jardunaldi osoko irakasle elebidun kopurua	Jardunaldi osoko irakasle elebidun doktoreen kopurua
2013	1703	1361
2014	1728	1374
2015	1773	1415

15. taulan ikusten da 2013. urtetik jardunaldi osoko irakasle elebidun doktoreen kopurua urtero handituz joan dela, 2013an 1361etik, 2015ean 1415 izateraino.



6. irudia: *Jardunaldi osoko irakasle elebidunen eta jardunaldi osoko irakasle elebidun doktoreen bilakaera ehunekotan 2013tik 2015era.*

6. irudian ikus daitekeen bezala, Plana 2017an bukatzen denerako zehaztutako %80eko helburutik oso hurbil gaude.

Euskararen II Plan Gidariaren jarraipen txostena Abendua 2015

3.2.2. Doktore titulua eskuratzeko 35 lizentziatarako deialdia

16. taula: Tesiak euskaraz egiteko doktorego aurreko kontratu kopuruen bilakaera (datu batukorrak).

Urtea/Año	Emakumeak/Mujeres	Gizonak/Hombres	Guztira/Total	Betetze maila / Nivel de cumplimiento (%)
2013	0	0	0	0
2014	6	1	7	20
2015	8	6	14	40
Guztira / Total	14	7	21	60

2013. urtean ezin izan zen urteroko deialdia burutu zeren eta aurreko urteko deialdian esleitutako kontratuak ordaintzeko behar izan zen 2013ko aurrekontua. Gaur egun helburuaren %60 dugu beteta.

3.3. Jarduera Akademikoaren Planean kontuan izatea UPV/EHUren helburuekin bat etorritz II. Plan Gidarian eginiko ekarpenak.

3.3.1. Euskaraz eginiko ekarpenak Jarduera Akademikoen Planean kontuan hartuko dira

JAPean euskaraz eginiko ekarpenak kontutan izaten dira.

4. Euskarazko testugintza:

- 4.1. Eskuliburuaren itzulpenak sustatzea, batez ere premia handiak dituzten arloetan, baina beste arloak baztertu gabe

Urtero zabaltzen dugu euskarazko eskuliburuak itzultzeko deialdia. Deialdia UPV/EHUko irakasle guztientzako zabaltzen da, nahiz eta ezagutza arloa edozein izan.

- 4.1.1. Urteko gutxienez 6 ikasliburu euskaratu.

2013an helburua bete zen. 2014an "Fisika zientzialari eta ingeniariarentzat" berrargitaratu zen eta beste 5 ikasliburu itzuli ziren. Eta 2015ean 7 ikasliburu itzuli dira, Planean zehaztutako helburua baino bat gehiago.

2013an itzultitako ikasliburuaren tituluak:

- **Munduaren historia ekonomikoa.**
- **Bero- eta masa-transferentzia. Hurbilketa praktikoak.**
- **Mineralogiaren hastapenak.**
- **Biologia- eta osasun-zientzietako estatistika metodoak.**
- **Egungo estrategia-analisisa.**
- **Erakundeen soziologia**

2014an itzultitako ikasliburuaren tituluak:

- **Giza anatomiako atlasa.**
- **Oroimena.**
- **Landare-fisiologia.**
- **Turbomakina termikoak. Diseinu termodinamikoaren oinarriak.**
- **Zuzendaritza estrategikoa. Teoria eta praktika.**
- **Reedición:**
 - **Fisika zientzialari eta ingeniariarentzat. 1. bolumena (1.etik - 21.era gaiak).**
 - **Fisika zientzialari eta ingeniariarentzat. 2. bolumena (22.etik - 46.era gaiak)**

2015ean itzultitako ikasliburuaren tituluak:

- **Mendebaldeko goi-inperio erromatarra. Augustotarrengandik Severotarrengana. K.a 31 – K.o. 235.**
- **Itsasontziaren eskuliburu.**
- **Mundu Modernoaren sorrera. Kontakizun global bat, XV. mendetik XXI. mendera arte.**
- **Instalazio elektrikoak.**
- **Erregulazio metabolikoa giza organismoan.**
- **Arteari buruzko oinarritzko kontzeptuak**
- **Lurraldeak eta mugaldea II.**

- **Agerraldiak eta presak Espainiako zinema dokumentalean.**

4.2. Euskaraz sortutako liburuak sustatzea.

4.2.1. Legeak-Leyes bilduma, Limes bilduma, Euskal Literatura Saila bildumekin aurrera egitea

[Ekimen honekin aurrera jarraitzen dugu.](#)

4.3. Unibertsitateko irakasleek ikasmaterialak eta ikasliburuak sor ditzatela bultzatzea, edo sortutakoa berrikusi eta eguneratzea.

4.3.1. *EHUskaratuak* corpora prestatzea eta online argitaratzea.

[EHUskaratuak corpora elikatzen jarraitzen dugu.](#)

4.3.2. GAIKA, UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak prestatutako gaikako glosarioak biltzen dituen corpora ere online argitaratu, hura kontsultatzeko aplikazioa prestatu eta kontaketa sistematikoa egin

[Hogeita hamazazpi mila termino baino gehiago kontsultatu daitezke gaikako glosategietan \(gaztelaniaz > 21.400; ingelesez > 14.800; frantsezez > 1.300\). Urtero urtero termino kopurua handituz doa, izan ere glosategia Euskara Zerbitzuak egiten dituen itzulpenetatik elikatuz doa.](#)

4.3.3. Irakasleek ikasmaterialak sortzeko urtero deialdi bat egitea, eta beste bat unibertsitate-liburuetarako, gutxieneko exijentzia-maila baldin badute argitaratuko direnak.

2.3 atalean aipatu den bezala Euskara Zerbitzuak urtero zabaltzen du ikasmaterialak sortzeko deialdia. Sortutako materialak irakasmaterialentzako biltegian argitaratzen dira on-line: ["Testubiltegia"](#).

2014ko deialdian 22 irakaslek parte hartu zuen, 14 emakume eta 8 gizon; 22 proposamenetatik bakarra izan zen onartu ez zena, kalitate irizpideak betetzen ez zituelako. 2015. urteko deialdiaren zabalkundearen ahalegin berezia egin dugu eta partehartzea handitu egin da 61 irakaslek izena emanda, 37 emakume eta 24 gizon. Deialdi honetan 11 proposamen ez dira onartu kalitate irizpideengatik eta 50 onartuak izan dira.

5. Prestakuntza linguistikoa:

5.1. Hobekuntza-ikastaroak eskaintzea irakasle eta ikertzaileei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei.

5.1.1. Hobekuntza-ikastaroak antolatu.

1.2.5 eta 2.3 ataletan aipatu den bezala, urtero antolatzen ditugu hobekuntza-ikastaroak AZP eta IIP-koentzako.

5.1.2. Urtero, urteko azken bi hilabeteetan, Euskara Zerbitzuak, Campusetako euskara zuzendariekin koordinaturik, urte horretako irakasle eta ikertzaileentzako eskaintza guztia argitaratuko du Euskararen arloko Errektoreordetzaren web orrian.

Ekimen hau aipatu bezala egiten da.

5.2. Unibertsitateak hizkuntza hobetzeko eskaintzen dituen zerbitzuen (*Ehulku, AZPidazki, EHUskaratuak,...*) berri ematea, ezagunagoak eta erabiliagoak izan daitezen

5.2.1. Zerbitzuen berri ematea. Erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egitea.

EHUikuren kasuan, UPV/EHUko kide guztiengana heltzeko EHUtaularen bitartez egiten dugu Hizkuntza Aholku berrien zabalkundea. Gainera, 2014an CD formatuan argitaratu genituen 2006tik sortutako hizkuntza aholku guztien fitxak. Bilduma sarean dago eskuragarri: [EHUiku](#).

EHUskaratuaren kasuan, elikatzen jarraitzen dugu eta Euskararen arloko errektoreordetzako webgunean dago sareratuta.

AZPidazkiren kasuan, 2014an Zerbitzuaren azterketa egin genuen 403 erabiltzailek parte hartu zuten zabalean eginiko inkesta baten bidez. Azpimarratzekoa da, inkesta bete zutenen artean, 223 pertsonak (%55) ez zutela AZPidazki ezagutzen. AZPidazki ezagutzen zutenen artean, gehiengoak Zerbitzuaren berritze beharra aipatu zuten; batez ere, ikusgarritasuna eta erabilgarritasuna hobetzeko. 2015. urtean AZPidazkiren berritze prozesua martxan jarri dugu eta 4 urteko eraberritze prozesuaren lehenengo fasean aurkitzen gara.

Erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egitea da ekimen honetan datozen bi urteetarako egiteke daukaguna.

5.3. Prestakuntza-tailerrak eratzea.

5.3.1. Prestakuntza-tailerrak ikastegi gehienetan eratu.

5.3.2. Terminologia Sareak Ehunduz proiektuarekin jarraitu.

2.3 atalean aipatu den bezala, TSE programaren bidez prestakuntza-tailerrak egiten jarraitzen dugu ikastegi gehienetan.

6. Ikerketa eta zabalkundea:

6.1. Zientzia-dibulgazioko jardunaldiak euskaraz antolatzea.

6.1.1. Unibertsitate aurreko ikasleentzat, profesionalentzat eta publiko espezializaturentzat, urtean behin zientzia-dibulgazioko euskarazko jardunaldiak antolatu.

UPV/EHUK antolatzen duen Zientzia-dibulgatzeko jardunaldi garrantzitsuena Zientzia-Astea da. Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza-ofizialetan antolatzen da Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru aldundien, Bilbo, Vitoria-Gasteiz eta Donostiako udaletxeen, Vital Kutxaren eta San Telmo, Artium eta Bibat museoekin elkarlanean.

2015. urtean UEUK antolatutako ikertzaile gazte euskaldunen I. kongresuaren finantziazioan eta antolakuntzan lagundu dugu. Azpimarragarria da antolakuntzan parte hartu zuten 13 ikerketa taldeetatik 9 UPV/EHUkoak izan zirela.

6.2. Euskaraz eginiko ikerketaren oihartzuna handitzea.


6.2.1. *Gogoa*, *Ekaia* eta *Tantak* aldizkariak hobeto indexatu eta argitalpen elektronikoan artikulua euskaraz eta nazioarteko beste hizkuntza batean argitaratu.

Gogoa, Tantak eta Ekaia aldizkarietako zuzendaritzak Latindexeko irizpideak betetzeko lanean ari dira FECYTEko aldizkariaren ebaluaziorako deialdira aurkeztu ahal izateko.

17. taula: 2008tik 2014ra UPV/EHUko euskarazko aldizkarietan argitaratutako artikuluko kopuruaren bilakaera.

Aldizkaria/Revista	2010	2011	2012	2013	2014	Guztira/Total
Gogoa	7	8	0	0	6	21
Tantak	11	13	11	12	9	56
Ekaia	14	18	28	35	35	130
Guztira/Total	32	39	39	47	50	207

Euskararen II Plan Gidariaren jarraipen txostena Abendua 2015



7. irudia: 2008tik 2014ra UPV/EHUko euskarazko aldizkarietan argitaratutako artikulu kopuruaren bilakaera.

7. irudian argi eta garbi ikusten da Euskararen II Plan Gidaria indarrean sartu zenetik argitaratutako artikulu kopuruaren igoera nabaria izan dela.

6.2.2. Aurreko aldizkariotako zuzendaritzen eta Argitalpen Zerbitzuaren arteko elkarlana bultzatu.

2015ean aldizkarietako zuzendaritzen eta Argitalpen Zerbitzuaren arteko elkarlana bultzatzeko ondorengo ekimenak jarri ditugu martxan:

Argitalpen Zerbitzua aldizkariekin kontaktuan jarriko da tesia euskaraz egin duten ikertzaileak zeintzuk izan diren informatzeko. Ekimen honen helburua da Argitalpen Zerbitzuaren bitartez aldizkariak ikertzaile gazteekin harremanetan jartzea artikuluak egin ditzaten. Ekimen hau aldizkarietako onuragarria izateaz gain, ikerlari gazteei ere euskaraz argitaratzeko aukera ematen zaie hezkuntzaren, komunikazioaren eta filosofiaren eta zientzia eta teknologiaren alorreko kalitatezko aldizkari hauetan.

Horrez gain, Argitalpen Zerbitzua aldizkarietako zuzendaritzekin koordinatu da hiru aldizkari zientifikoei buruzko informazio erabilgarria biltzen duen dokumentua eratzeko. Ondoren, informazio dokumentu hori foro ezberdinetan erabilgarria izango da; besteak beste, irakasle berrien harrera ekitaldian, durangoko azoka,....

6.3. Euskarazko tesiak sustatzea eta ikerketaren zabalkuntza bultzatzea.

6.3.1. Arlokako tesi onenaren Koldo Mitxelena sariaren deialdia 2 urtean behin antolatu.

2014an Euskaltzaindiarekin elkarlanean Koldo Mitxelena sarien IV edizioa antolatu zen eta 2016an V edizioa antolatuko da.

Euskararen II Plan Gidariaren jarraipen txostena Abendua 2015

- 6.3.2. Euskaraz defendaturiko tesiak Argitalpen Zerbitzuan argitaratzea bultzatu.

UPV/EHUⁿ defendatutako tesi guztiak, hizkuntza edozein izanik, UPV/EHUko errepositorio ofizialean argitaratuta egon behar dute. (ADDI). Argitalpen Zerbitzua ari da ekimen berri hau koordinatzen tesi guztiak ADDIn argitaratuta egon daitezen.

- 6.3.3. Urtero euskarazko tesien epaimahaietan itzulpen zerbitzuak ordaintzeko deialdi bat argitaratu

Ekimen honetarako urtero argitaratzen da deialdi bat.

- 6.3.4. 2014. urtean doktore euskaldunen datu-basea abian jarri.

UPV/EHUko doktore euskaldunen informazioa badaukagu eta tesietan tribunal euskaldunak eratzeko laguntza ematen dugu Euskararen arloko Errektoreordetzatik. Baina datu-basea modu sistematizatuan eguneratua edukitzeko gaitasunik ez dugu. Ekimen hau gainontzeko erakundeetara ere zabaldu nahiko genuke datu basea UPV/EHUtik kanpo lan egiten duten adituez elikatua izan dadin.

- 6.3.5. Euskarazko tesien ingelesezko laburpenean laguntzeko deialdia egin eta horren kanpaina informatiboa egin.

Ekimen honetarako urtero argitaratzen da deialdi bat.

- 6.4. Euskal Herriko eta kanpoko erakundeekin elkarlanean aritzea ikerketen eta zientziaren zabalkundea bultzatzeko.

6.1.1 eta 6.3.1 ataletan azaltzen dira ikerketaren eta zientziaren zabalkundea euskaraz egiteko erakunde ezberdinekin ditugun elkarlanak.

- 6.5. Euskararen arloko Errektoreordetzak bultzatzen dituen aldizkari zientifikoaren indexazioa hobetzea.


- 6.5.1. Euskarazko aldizkari zientifikoetan publikatzen diren artikuluen balorazioa UPV/EHUko JAPen, ikerketa deialdietan eta selekzio-prozesuetan.

2015. urtera arte JAPean baloratzen ziren euskarazko aldizkari zientifikoetan publikatzen ziren artikulua, baina JAParen berrikuntzarekin JCR eta Scopus-en indexatutako aldizkarietako argitalpenak bakarrik baloratzea onartu da. Hala ere, euskarazko


aldizkarietan argitaratutako artikuluak UPV/EHUko ikerketa deialdietan eta aukeraketa prozesuetan baloratzen dira.

6.6. Udako ikastaroetan euskararen presentzia gehitzea.

6.6.1. Planaren indarraldiaren amaieran udako ikastaroetan euskararen presentzia handiagoa izatea



8. irudia: Udako ikastaroetan euskaraz eskainitako ikastaro kopuruaren bilakaera.



9. irudia: Udako ikastaroetan euskaraz eskainitako ikastaroetako partehartzaile kopuruaren bilakaera.

Udako ikastaroetako Fundazioaren 2016-2018 Plan Estrategiko berriaren ildo estrategikoetako bat da euskararen presentzia areagotzea udako ikastaroetan. Hala ere, euskararen presentzia areagotzeko arazo nagusia, udako ikastaroetako programa

batzordeak euskaraz diseinatutako proposamen kopuru txikia duela da. Neurri bezala, udako ikastaroetako araudian euskaraz diseinatutako ikastaroei hiru puntu gehigarri ematen zaizkie.

6.7. UPV/EHUn euskaraz aritzen diren Katedrekin eta Euskara Institutuarekin elkarlanean aritzea.

6.7.1. UPV/EHUn euskaraz aritzen diren Katedrekin elkarlanean aritu.

Euskara Institutuarekin eta Mikel Laboa Katedrarekin elkarlan estuan aritzen gara.

6.8. Euskara erabiltzen duten ikerketa taldeak eta euskararen gainean edo euskararekin lotuta dauden gaietan ikertzen duten taldeak sustatzea

6.8.1. Euskara erabiltzen duten ikerketa taldeak, euskararen gainean edo euskararekin lotuta dauden gaietan ikertzen duten taldeen kopurua eta talde horien kideen kopurua handitu.

Oraindik helburu honekin erlazionatutako ekimenik ezin izan da burutu.

6.8.2. Euskara erabiltzen duten ikerketa taldeak, euskararen gainean edo euskararekin lotuta dauden gaietarako ikerketa deialdi berezituak egin.

Oraindik helburu honekin erlazionatutako ekimenik ezin izan da burutu.

7. Euskara erabiltzea unibertsitate barruko nahiz kanpoko komunikazioan:

7.1. Benetako elebitasuna bermatzea web orri berrian eta aplikazio informatikoetan.

7.1.1. IKTen Gerenteordetzaren barruan garatzen diren aplikazio eta proiektu informatikoak bi hizkuntza ofizialetan eman.

Euskararen arloko Errektoreordetzaren eta IKTen Gerenteordetzaren ahaleginak aplikazio eta proiektu informatikoak bi hizkuntza ofizialetan ematera zuzenduta dauden arren, badakigu oraindik ere hobetzeko tartea dugula.

7.2. «Euskal Hiztunentzako Bulegoa» ezagutaraztea eta han jasotako ekarpen nahiz keak aztertu eta erantzuna ematea.

7.2.1. Ezagunagoa izateko komunikazio kanpaina egin.

Euskararen II Plan Gidariaren jarraipen txostena Abendua 2015

2014an eta 2015ean irakasle berrien harrera ekitaldiak baliatu ditugu «Euskal Hiztunentzako Bulegoa» ezagutzera emateko. Gainera, sarrera banner-a Euskararen arlo Errektoreordetzaren web atarian ikusterraza den lekuan (goian eskuinaldean) dago argitaratuta.

7.2.2. Zerbitzuaren erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egin.

Ez dugu Zerbitzuaren erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egiten, baina bai tramitatutako kexena.

7.2.3. Bulegoan jasotzen diren iradokizun eta kexak aztertu eta bide eman edota, ahal delarik, konponbidea eman.

Ekimen hau enuntziatuan zehazten den bezala burutzen dugu.

7.3. Kanpoko enpresek edo erakundeek eskainitako zerbitzuetan hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea

2012ko uztailaren 19an Gobernu Kontseiluan onartutako UPV/EHUren harrera ofizialetan hizkuntzen erabilerarako jarraibide eta irizpideen arabera, erabiltzaileekiko harreman zuzena dakarten zerbitzuen prestazioetan, ondorengo baldintzak bete behar dira:

1- Erabiltzaileak bi Hizkuntza ofizialetan hartuak izateko eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak..

2- Erabiltzaileentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko ditu enpresa esleipendunak.

7.4. UPV/EHUK ezarritako irizpideekin bat etorriko den euskararen erabilera hizkuntza paisaian (errotulazioa, oharrak, ...) bermatzea.

Aurreko atalean aipatutako jarraibide eta irizpideak Hizkuntza paisaian ere aplikagarriak dira.

7.5. Euskararen erabilera sustatzea.

7.5.1. Bilaketa zerbitzuan, pertsonaren datuak ematean (ikastegia, saila, kargua, campusa, telefono-zenbakia eta posta elektronikoa), ahal izanez gero, elebiduna den kasuetan hala dela adieraziko da.

Oraindik burutu ez dugun ekimena da. Adibidez, ekimen hau jada martxan dago Osakidetzan eta oso baliagarria izan ahal zaigu UPV/EHU-n aplikatzeko. Gainera Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburutza ekimen honetarako "Txantxangorria"-ren zigiluaren erabilera bateratua bultzatzen ari da.

Euskararen II Plan Gidariaren jarraipen txostena Abendua 2015

7.5.2. Ikastegietako eta Campusetako Euskara Batzordeen garrantzia eta zereginak indarberritu.

Oraindik ez gara ikastegietako eta campusetako euskara batzordeak dinamizatuko dituzten ekimen eraginkorrak diseinatzeko gai izan.

7.5.3. Planaren bideragarritasuna sustatzeko 2014ko udaberrian dinamika partehartzailea burutu.

Ekimen hau burutu zen.

7.5.4. Euskararen Nazioarteko Eguna UPV/EHUn ospatu.

Urtero ospatzen da UPV/EHUn Euskararen Nazioarteko Eguna. Baina 2015ean lehen aldiz prestatu dugu ekimen honetan interesa zuten taldeen proposamenak diruz laguntzeko deialdi ofiziala. Deialdi honen bidez, proposamenak diruz laguntzeaz gain, campus ezberdinetako proposamen ezberdinak bateratu nahi izan dira eta euskararen erabileraren alde lan egiteko prest dauden kide aktiboaren sarea sortu nahi izan da. 18. eta 19. taulatan ikusi daitezke ekimen hauetan parte hartu dutenen datuak.

18. taula: Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimenen antolakuntzan parte hartu duten UPV/EHUko kideak estamentutika banatuta.

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira/Total	%
Ikasleak/Alumnado	81	67	150	298	79,68
AZP/PAS	3	12	9	24	6,42
IIP/PDI	11	13	28	52	13,90
Guztira/Total	95	92	187	374	100,00

19. taula: Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimenen antolakuntzan parte hartu duten UPV/EHUko kideak generoaren arabera banatuta.

	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira/Total	%
Emakumeak/Mujeres	65	48	106	219	58,56
Gizonezkoa/Hombres	30	44	81	155	41,44
Guztira/Total	95	92	187	374	100,00

8. Euskararen azpiegitura:

8.1. Itzultzaile-interprete plaza berri bat sortu eta kontratatzea

8.1.1. Itzultzaile-interprete bat gehiago ahalbait arinen izan. LPZren barruan sartzeko konpromisoa berretsi.

8.2. Ikasmaterialgintzako zuzentzaile plaza berria sortu eta kontratatzea.

8.2.1. Euskarazko ikasmaterialen hizkuntza-begirale eta zuzentzailearen lanpostua sortzeko premia eta ezinbestekotasuna berretsi

Euskararen azpiegituren helburuetarako ezin izan da plaza berririk sortu eta kontratatu.

9. Euskara eta euskal kultura ikertzeko, garatzeko eta sustatzeko UPV/EHU eragile aktibo izatea:

9.1. UPV/EHUekin euskara eta euskal kulturaren gaineko hitzarmenak sinatu dituzten erakundeekin lankidetzak finkatzea eta beste erakunde batzuekin lankidetzak-hitzarmen berriak sustatzea.

9.1.1. Gaur egungo lankidetzak-akordioekin jarraipena finkatu.

9.1.2. Erakunde batzuekin lankidetzak berriak sustatu.

Euskara eta euskal kulturaren gaineko hitzarmenak sinatu dituzten erakundeekin hitzarmenak matentzen jarraitzen dugu, eta beste erakunde batzuekin ere hitzarmen berriak sustatzen ari gara.

9.2. Unibertsitate komunitatearen barruan gure hizkuntzaren erabilera bultzatzeko, euskara erabiltzen duten gainerako unibertsitateekin batera horri begirako jarduerak abian jartzea.

9.2.1. 2010ean 'Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko lankidetzak-Hitzarmena' izenekoan unibertsitateko jardueretan euskara sustatzeko inizatibarekin jarraitzea.

Ekimen ezberdinak burutu ditugu unibertsitate komunitatearen barruan gure hizkuntzaren erabilera bultzatzeko euskara erabiltzen duten gainontzeko unibertsitateekin batera:

Euskararen II Plan Gidariaren jarraipen txostena Abendua 2015

1- Eztabaida liga: 2015eko urriaren 9an ospatu zen Eztabaida Ligaren laugarren edizioaren finala Euskal Parlamentuan. Edizo hau berezia izan da bi arrazoi nagusigatik; batetik, Nafarroako Parlamentuko lehendakaria bertaratu zelako eta bestetik, lehen aldiz Nafarroako Unibertsitate Publikoko ordezkari batek parte hartu zuelako, Deustoko Unibertsitateko, Mondragon Unibertsitateko eta UPV/EHUko taldeekin batera.

2- Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatearekin eta Zaragozako Unibertsitatearekin batera, POCTEFA deialdian mugazgandiko proiektu interregional bat garatzeko eskaria egin dugu. Proiektu honetan hainbat ekimen planteatzen ditugu euskara bultzatzeko unibertsitateko aktibitateetan. Adibidez, hiru unibertsitateetako hizkuntza plataforma ezberdinen azterketa (horien artean euskararekin erlazionatutako plataformak), edo hizkuntzak egiaztatze prozedimendu ezberdinen integrazioa (horien artean euskara).

10. Ikasleen eskubide linguistiko-komunikatiboak bermatzea eta euskararen erabilera normaltzeko egitasmoetan parte-hartze zuzena izatea.

10.1. UPV/EHUko ikasleek daukaten euskarari buruzko pertzepzioa eta erabileraren inguruko inkesta burutzea.

10.1.1. Beranduenez 2014-2015 ikasturtean ikasleek duten euskarari buruzko pertzepzioaren eta erabileraren inguruko inkesta burutu zentroetako Euskara Batzordeetan, eta gero UPV/EHUko Euskara Batzordeak, Ikasleen Kontseiluarekin batera, azterketa orokorra egin.

Ekimen hau ez da burutu oraindik.

10.2. Ikasleen inizatibaz sortutako euskarazko ekimenak sustatzea.

2015eko Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimenen deialdian aurkeztutako 14 proposamenen artean, hiru ikasleen inizatiba hutsez sortutakoak izan dira. Horrez gain, nahiz eta beste proiektuetan koordinatzailea ikaslea ez izan, kide bezala ere parte hartu dute. Proiektu guztiak kontutan izanda 298 izan dira parte hartu duten ikasleak.

10.3. UPV/EHUrak kanpotik etorritako pertsonen euskal kulturaren eta hizkuntzaren inguruko harrera ematea.

10.3.1. Euskara eta euskal kulturaren ezagutza sustatzeko ikastaroak eskaini.

UPV/EHUko hizkuntzen bulegoaren laguntzarekin atzerritarrentzako oinarrizko mailako euskara ikastaroak antolatzen ditugu euskararen eta euskal kulturaren ezagutza bultzatzeko. 2015ean inoizko matrikulaziorik altuena lortu da: 19 ikasle Araban, 10 Bizkaian eta 22 Gipuzkoan.

Gainera Euskararen arloko Errektoreordetzak laguntza eskaini dio Gizarte Zientziak eta Komunikazioko Fakultatean antolatzen duen "Basque Language, Culture and Media" irakasgaiari. Irakasgai honen helburu nagusia atzerritik UPV/EHUrak ikastera datozen ikasleei euskal kulturaren inguruko harrera egitea da.

10.3.2. Kanpotik etorritakoei euskararen egoeraren berri eman, oro har nahiz UPV/EHUn.

Helburu honetarako ekimen zehatzik oraindik ez da egin.

10.3.3. UPV/EHUko ikasleen artean hizkuntza-trukeak bideratu (berba lagun, hizkuntza-trukeen poltsak, ...).

2013. urtetik UPV/EHUK euskararen erabilera eta ikaskuntza on-line xede dituen Mintzanet plataformarekin kolaboratzen du. Ikasleak plataforman izandako 25 orduko jardunaren ordainean ECTS kreditu bat eskatu dezake.

9.2.1 atalean aipatu den POCTEFA proiektuaren ekimen espezifikotako bat hizkuntzen-trukerako (euskara, gaztelania, inglesa eta frantsesa) Tandema garatzea da. Deialdira aurkeztutako proiektuaren onarpenaren menpe gelditzen da ekimen honen etorkizuna.